


A.T.V.
6230

ÍLARGI BETE



ÚRKIA'TAR
PERNANDO
MADINA'TAR
PRANZISKO

V.
2





ILARGI BETE

UNIVERSITAT DE VALÈNCIA
INSTITUTO SOCIAL DE LA UNIVERSIDAD DE VALÈNCIA

Valencia, 1944

DEPARTAMENT D'EDUCACIÓ I CULTURA

ILARGI BETE

EDITA: ILARGI BETE, S. L. (Valencia)
DISEÑA: ILARGI BETE, S. L. (Valencia)
DISTRIBUCIÓ: ILARGI BETE, S. L. (Valencia)
TIRADA: 1000 exemplars

EXEMPLAR DE

VALÈNCIA, 1944. 1000 exemplars

HAARDT

11-15459
P-8397

IĻARGI BETE

URKIA'TAR PERNANDO ABAK (izkia)

ta MADINA'TAR PRANTZISKO'K (eresia)

IDATZITAKO

bi ekitaldidun MIXIO-ANTZERKIA



1928'g. urtean, Iruña'n, Napafoa'ko
«EUSKERAREN ADISKIDEAK» eratutako
Antzerki-Batzaldian Gotzai Jaunaren
sariaz saritua

ZORNOTZA'N 1929
JAUNGOIKO - ZALE' REN IRARKOLAN

ILAROI BETE

Cum permissione Abbatis Generalis
Ordinis Canoniorum Regularium Late-
ranensium,

Nihil obstat

Dr. L. de Menchaca

Imprimi potest

† *Matthaeus*

Episcopus Victoriensis

Victoriae 15 Decembris 1928

LENGUAZKO ENKALDIA

ALBAZAKIA

Mujika eta Urstarazu'tar Mateo
Iruña'ko Gotzai izandako
Jaun guztiz argi ta agurgari, ta
Euskeltzale txit zintzoari
Eskeintzen diote lantxo au
EGİLEAK.
Oñati'n, 1928'g. urteko gure Alta
Agustin'en egunean.

ANTZESLARIAK

Onesto Santua	60	urtekoa	
Fermin Santua	15	»	
Efo.	60	»	Endore edo nagusia.
Osteriz	35	»	
Olabe	35	»	Orikain'go gizakiak.
Lazkoz	35	»	
Ureta	40	»	
Zabaltza	40	»	
Akefeta	40	»	Txistularia.
Zildoz	40	»	
Ilegofi	55	»	Efo'ren emaztea.
Garbi	35	»	Zildoz'en emaztea.
Izafa	15	»	» alaba.
Uso	8-9	»	» »

Lau adiagile (Plañideras) 60, 50, 45 eta 40 urtekoak.

Iruña-inguruetakoko efitxo batean gertatzen da, Onesto do-
neak Iruña kristautu zuen garaian.

LENBIZIKO EKITALDIA

AGERTOKIAN.—*Orikain'go alkate edo endorearen txabol-aurea. Eskuitik txabola, ezker eta barenetik basoa. Bare eta txabol-aldeetatik aulki zakar-luzetxo bat edo beste. Ilunabara da.*

I AGERKALDIA

Onesto ta Fermin

(Oyala jasotzean agertokia utsik dago. Beresala Onesto ta Fermin ezkefetik agertzen dira.)

FERMIN. *(Sartuaz bat)* Ona emen, nere aita maitea, Orikain'go auzora eldurik. Etxe auxa dala uste det aurtengo nausiaren etxea.

ONESTO. *(Besoa zerurantz jasorik)* Gure Jesus onak bere bi mofoi aben pausoak bide onean zuzendu bitza! Gure nekeak ontzat artu ditzala!

FERMIN. Asko nekatu al zera, aita, aldapa ortan?

ONESTO. Ezer gutxi, Fermin.

FERMIN. Emen alki bat, atsedena artzeko.

ONESTO. Jaunak eskeintzen digun ezker, artu dezagun biok, gero indar geiagoz lan egiteko. *(Birik alkiaren eseriko dira. Onesto'k nekez bezela itz egingo du)...* Ez dakit nolan azaldu, seme, nere poza.

FERMIN. Zer, aita?

ONESTO. Jaunak beragaitik egiten ditugun lantxoak atsegin andiak emanik ordaitzen dizkigu, seme.

FERMIN. Esku zabala bait-da.

ONESTO. Mixiolariak opa dezaken saririk onena emen ugari artzen da... Denbora labufean Iruña'ko efiak Jaunaren itza gogoz aditu du.

FERMIN. Ez guziak, aita. Gezuefzko jainkoez jafaitzale asko da oraindik Iruña'n.

- ONESTO. Oiek ere laster Jesus'en uztafi biguna artuko dute.
- FERMIN. Laster ikusi dezagula egun oril
- ONESTO. Jaunaren itza egifialean ereintzen saia gaitezen, bai, ta Berak bere intza geroaz guk ereindakoa jaio-araziko du.
- FERMIN. *(Sutsu)* Ni beintzat lanerako gertu naukazu, aita.
- ONESTO. Ez dakit nola; baña uste aundia sortu zait biotzean zuen berarizko bizikera ikusita...
- FERMIN. A! Poz aundia ematen diate itz oiek.
- ONESTO. Gezuferzko jainkoak dituzute, bai, euskeldunok; erbestetafenganako iguiña, izakera zakar-zamaña, ta beste onelako akatzen batzuk dituzute...; baña zuen biotza bezelako biotz on, zintzo ta garbiagorik ez da erez inon arkitzea.
- FERMIN. Jaunaren doaiak, noskil
- ONESTO. Zeruko argiak zuen buruak argitu orduko, Jesus'en legea gogoz artzen dezute... Mendi abek zuen biotz onen gordelariak dira, egiz.
- FERMIN. Donetsi bedi Jaunaren efukitasuna!
- ONESTO. Beste aldetan Mixiolariak safi bere odola ixuri bear dute, emen... ez.
- FERMIN. Daukagun on apufa Jaunari zor diogu, gere alderdi txafak berak kenduko al dizkigu!
- ONESTO. *(Gorantz begira)* Ni Jesus'en mixiolarien artean txiki ta beartsuena naiz beintzat, eta ez det olakorik irabazi!
- FERMIN. Goraldu dezagun, bada, Jaunaren guganako efukitasuna!
- ONESTO. Bai, seme; bean Ezkabarte'ko ibafean ikusi degun saria, emen ere ikusi dezagula!
- FERMIN. Bai, alan gerta dediña.
- ONESTO. Ea, bada, Fermin; *(Onesto zutitzen da, ta Fermin ere bai)* lenbiziko ate ontan jo baño

len, Jesus Jaunari laguntza eskatu zaiogun.
FERMIN. Bai, aita, bai.

(Biak erdian belaunikatzen dira)

ABESTIA

Onesto'k

Gizonen jabe, Jesus maitea,
Laño gañean zaudena,
Denon biotzen nausi ta jauna,
Itzul begiak gugana,
Begi gozoak gugana.

Fermin'ek

Ona ementxe napar gaxoak
Satan-mendean galdurik,
Gorputz-animaz, esku ta oñez
Berari afas loturik,
Kate gogofez loturik.
Beren begiak, beren buruak
Argitu itzatzu beala;
Zure efukiak beren biotzak
Piztu ta sutu ditzala
Onbidez bete ditzala.

Biak

Artzain zintzoa, artzain on-ona,
Animaz goseik zeudena,
Ardi gaixuok deitu zazkizu
Eta eraman zugana,
Sinismen bidez zugana.

(Gero biak txabolarantz zuzenduko dira, Onesto aurretik)

ONESTO. *(Txabol-atean, gogortxo)* Etxe ontan pakea
ta osasuna izan bitez!... *(Fermin'i)* Ez du inork

erantzuten... (*Burua atetik bafenera sarturik*) Ez da inor bafenean. Eta... suan arkume-istefa... Gaxoa! Jaunak aragi ori jango dutenai osasuna eman bezaie! (*Bertatik aragia eskuaz bedekatuko du*).

FERMIN. Aita, barkatu; ez naiz len oartu.

ONESTO. Zer dezu, seme? Esan.

FERMIN. Ilargi-beteak diralako gaur gabea, apal-ondo-rean, gizonak ementxe bilduko dira, ilargiaren omenez dantza egiteko.

ONESTO. Ilargiaren omenez dantzatu!... Gaxoak!... Nork itxutu zaituzte, euskeldun maiteak, ilargia jainkotzat artzeko?... (*Fermin'i*) Seme, noiz etofiko dira gizonak ona?

FERMIN. Ordubete bafu, beranduen.

ONESTO. Geroz, beste etxe batera abiatu gaitezke, ia Jesus'i bitartean ardiren bat bilatzen diogun.

FERMIN. Goazen, bada, aita. (*Blak eskutik irtengo dira*).

II AGERKALDIA

İlegoři bakarik

(Besteak irtenda bereala ezkefetik sartuko da, laster eta urduri-samar, besapean abar-pilotxoa duela).

İLEGOŘI. ¿Zer? Erbestetarak ere bai?... Gure etxean sartu dira, zer edo zer ostutzeko, noski. Afano mukitsuok!... Ikusi dezagun zer ostu diguten. (*Lasterka txabolan sartuko da. Abarak zarataz lufean botako ditu, ta apur bat bertan egonda, beriz aterako da.*) (*Bareago*) Ez dirate ezer ostu. Dena lengo lekuan dago. Beafik!... Ez zituan bestela gure gizonak pakean utziko. Baña... zertarako etofi dira bi gizonok?... Lapufak ez dirudite... armarik ez dute...

ez dakit. la norantza artzen duten, (*Biak atera diran aldetik begira jariko da*)... Akefeta'ren txabolarantza egin dute. Akefeta'gana!... ja! ja! Ona da bera inorekin jolasean asteko!... Au nik detan gogoia ipui onen bukaera jakiteko! Pozik joango nintzake atzetik, baña... gaur ilargi-beteak dira-ta, gizonari aparti ona gertatzen ez ba'diogu, su ta txinparta gofiak ikusi berauko ditu Efo jaunaren etxeak. Goazen, bada, lanera. Gure gizonak gaur baño lenago etortzen badaki. (*Txabolan sartuko da, ta bafendik abek kantatzen asiko da*).

ABESTIA

Ilargi eder	Zure arpegi
Maite-maite	Borobila
Agertu dezu	Beti bai dago
Musua,	Bafeka;
Emen zaiguzu	Emango, bada
Eder ofek	Dizkiguzu
Zu bizi zeran	Egun alaiak
Zerua.	Milaka.

Esan zaidazu
Orain bertan
Bular-gorputza
Non dezun,
Eguzki jaunak
Jen al dizu
Idukitzeko
Ain ilun?

III AGERKALDIA

Efo bakañik. Gero ilegori bañenetik.

(Ilegoñi azkeneko olerkia abesten ari dala, Efo bizkarean makil batetik eane-ontzia duala sartuko da, ardietatik baletor bezela. Efo agertoki-erdian ilegori'ren azkeneko itzak entzuten geldi-geldi egongo da. Itz egiten asteen ontzia lurrean utziko du).

- EÑO. Ori umorea gure andrearena!... Ni bezela egun guzian basoan lanean egon ba'litz, alajañetan!... Abestutzea negar egitea baño obe da, ordea, ta... (*Bat-batean gogoratu balitzalo bezela*) Ilargiari abesten zegon gure andrea. Gaur ilargi beteak dira. (*Gogor*) Non daukat nik burua? Geroago ta okeřago dijoakit. (*Ontzia lurretik artuta*) Goazen gure aparria egitera, gizonak laster emen dira-ta. Bein dantzara uts egingo banu, ez nintzake beriz Orikain'go endore izango. (*Txabolarantz dijoala*) Gertatu dezu ezer ilegofi?
- IŁEGORİ. (*Bařendik*) Bai gerturik dago aspaldi aparria.
- EÑO. (*Txabol atean eskutatzean*) Ia, bada agudo.

IV AGERKALDIA

Osteriz eta Lazkoz. Bařendik Eřo

(Osteriz ta Lazkoz bařendik abesten asiko dira. Gero agertokian sartuko dira, eskuan makil bana dutela).

ABESTIA

Blak

Gizon guzti-guztiak
Etofi dantzara
Gau atsegingafia
Ementxe egitera.

Ez bedi gaur gizonik
Etxean gelditu
Datořen ila ongi
Igaro nai badu.

Emazteak etxeko
Lanak ein bitzate
Zakufak artaldea
Zaindu bigar arte.

Gizon denok ordea
Batzafera erdu
Ta gure ilargiarl
Otoitzak zuzendu.

Ilargi eder ori
Oroitzen al zera
Gure asaba zafak
Maite zinduztela?

Berak eratu zuten
Gaurko jai edera;
Argi gaitzazu bada
Zorion-bidera.

OSTERIZ. Gaur lenbizi eldu gaituk, Lazkoz.

LAZKOZ. Ez dek oraindik berandu ere; ilargia irten beñi dek.

OST. (*Didarka Efo'ri*) Gertau al gera, endore?

EÑO. (*Barendin*) Bai, bereala.

LAZK. Gaur ilegofi'k apari ona gertatuko zizun, e...?

EÑO. Alan-olakoa, ba, mutil.

OST. Ez ibili guregaitik lasterka, besteak ez dira oraindik agiri-ta, (*Lazkoz'i*) Besteak bildu bi-tartean aulki ontan jezafi gaitzek.

LAZK. Bai, mutil, lendik neiko zutik egonik gaituk. (*Biak eseriko dira*).

OST. (*Año samar*) Gaur zuen ardietan piztirik agertu al dek, Lazkoz?

LAZK. Gaur ez. Atzo bat ikusi nikan, baña ezin nikan arapatu.

OST. Totela aiz i; eskuak argizagizkoak dituk. Ba... neri bi otso etofi zaizkidak gaur goizean, eta... zazta! zazta! biak geziaz josi zetikat.

LAZK. Ez diguk mesede txafa egin!... Ez dituk otso afano oiek Orikaingo ardiekin beñiz jolastuko.

OST. Ez zekiat eskerak nola eman ilargi jaunari. Bere

- argiagatik izan ezpalitzak, otsoen orde zakufo
edo ardiak ilko nitukan, noski.
- LAZK. Ni, Osteriz, bildufez jartzen nauk, bera asafe
danean, laño beltzaz bere arpegia estaltzen du-
nean. Eta egiz, olako gauetan beti okefen bat
izaten dek gure artalde ta etxean.
- OST. Baita gurean ere. Oin-ufengoan axeri zikin ba-
tek bi olorik edefenak artu zizkigukan.
- LAZK. Aspaldi ontan lotan zeukagu gure Basajauna.
Ez dik gure aberien ajolarik artzen.
- OST. (*Aro*) Nik jaun ori ikusiko banik, botatzekoak
botako nizkiokek arpegira.
- LAZK. (*Iñibarez*) Bai, zera. I Basajaunaren afean, gu
bezela, bildur eta ixilik.
- OST. (*Sutsu*) Nik iñoren bildufik? Ez orixe.
- LAZK. Bai emen mutil gaituk; gero istiluak!...
- OST. Bai, ik prakok bustiko ituzkek beintzet.
- LAZK. Ez ainbeste.
- OST. Zer egingo uke, ba, koldar ofek?
- LAZK. (*Sutsu samar*) Bere mendean jafi.
- OST. Ta asafe balegok?
- LAZK. Goiko jaunei laguntza eskatu.
- OST. Ori dek burua oinpean erabiltzeal!...
- LAZK. (*Sutsu*) Ik goiko jaunok ziztrin egiten dituk.
- OST. Ilako leloakin bai beintzet.
- LAZK. (*Gogor*) Obendun aiz. Jaunok iraindu dituk.
- OST. (*Asare*) Nik ez. Ik irainduko itukan, toteltzar
ofek.
- LAZK. (*Asare*) Ik egin dituk, afo ofek: gazta zafa
baña afoago aizen ofek.
- OST. (*Zutiturik*) Ago ixilik!
- LAZK. (*Zutiturik*) I ixildu bearko aiz lenago.
- OST. Iri otsoak sudur-punta oartu gabe jango likikek
-eta...
- LAZK. Iri mingain luzegi ofi befiz.
- OST. Ago beingoan ixilik, kirten-befitxu ori.

LAZK. Ni kirtena?
 OST. Bai, ta aundia.
 LAZK. (*Asaŕe bizian makila jasota*) Ikusiko diagu ori. (*Biaĥ makilakaz buŕukatzeĥo gertu-gertu dira*).

V AGERKALDIA

Lengoak, Ureta, Zabaltza ta Olabe. Gero Efo.

(Ureta, Zabaltza ta Olabe, eskuan makil bana, sartuko dira, Berealaxe asafatuenganantz joango dira, buŕuka eragozteko).

ZABALTZA. Geldi, gizonak!
 OLABE. Zer dala-ta buŕukan, Lazkoz?
 URETA. (*Osteriz'i besotik eldurik*) Zer? Gaur asaŕe, Osteriz?
 OST. Bai, madarikatu onek iraindu natxiok.
 LAZK. Gezuŕa orixe!
 OST. Bai, ik koldar oŕek.
 ZAB. (*Asaŕetuen erdian sarturik*) Geldi, gizonak! Gaur ez da buŕuka-eguna-ta.
 LAZK. Ikusi bear didak, mingain luze oŕek!...
 OLA. (*Lazkoz'i*) Ago ixilik, Lazkoz. (*Besotik eltzen dio*).
 LAZK. (*Olabe'ri gogor*) Utzi nazak geldil!
 URE. Gaur irañak barkatu bear dira, gizonak.
 LAZK. (*Sutsu*) Ez nik Osteriz'i.
 OST. (*Bizi*) Ezta nik iri ere.
 LAZK. Ez gaur, ez iñoiz.
 OST. Sekula ez iri, befitxu alen ori.
 LAZK. Befitxu ni? (*Osteriz'ganantz egingo du, baña Olabek eutsiko dio*)
 ZAB. Nongo ura eran dute gaur gizonok?
 OLA. Osteriz'ek pipermiñak jan dizkik.
 URE. Ago beingoan ixilik, Osteriz, baña.

(Ero txabolatik aterako da, ta ilegori ere bai atzetik ateraño. Bi asafetuak, Ero ikusita, pakeagotuko dira)

ERO. (*Bere baitan*) Ez didate gizonok pakean apal-tzen utziko. (*Gero andreari begiraturin*) Ez dute emakumeak gizonen arazoetan sartu bear. Zu, zere lanetara! (*ilegori beriz txabolan es-nutauno da. Gero gizenganantz zuzendurik*) Zer da ofenbeste istilu ta oju egiteko? Aufak beren burukalditan ez dute zarata geiago ate-ratzen... Ia, esan zer gertatu dan.

OST. Goiko jaunen kaltezo itzak esan ditudala, ta beste olako gezufak bota dizkit Lazkoz'ek.

LAZK. Ez da egia ori. Jaun oiengan uste aundia jafi detalako, sekulako itxuskeriak esan dizkit.

OST. (*Sutsu*) Gezur galanta orixe.

LAZK. (*Sutsu*) Ez, egi utsa.

ERO. (*Gogor*) Ixilik emen biok... Neiko da... Alpefik da didar egitea. Nik eta nere andreak gertatu dan guzia sukaldetik aitu degu... I, Osteriz, gaur bi pizti aundi il ditukalako, lelendik arotxo agertu aiz, Lazkoz koldar eta makaltzat artu-rik... Ik asi dek eztabaida; irea dek gertatu dan guziaren erua... Ta gure asaba agurgafien oitura onak agintzen duana egiteko, biar goi-zean ire artaldetik bururik onenetako bat Laz-kozi emango diok.

LAZK. (*Osteriz'i*) Geiago irabazi dik ire afokeriak.

OST. (*Bere baitan*) Au nire amofua!

ERO. (*Bereala*) Eta... auzi au bukatu da...

OLA. Jakin al diteke, Ero jauna, Osteriz'ek il dituan piztiak zeintzuk izan diran?

ERO. Bi otso izan dituk.

OLA. Bi otso!...

URETA. Bi otso!...

ZAB. Gure ardiak jaia ditek gaur.

OLA. (*Osteriz'i*) I aiz mutila, i; zeru goian egazka

- dabilen afanoa ere ilgo ukek ire geziaz.
(*Osteriz, itz abek aditurik, paketuko da*).
- EÑO. Baña... nori gaude itxedoten? Non daude Zildoz ta Akefeta?
- URE. Ba... gure emazteak Akefeta'renean bi atzefitar sartzen ikusi omen ditu.
- ZAB. Zildoz'ek, befiz, alaba gaizki omen du.
- EÑO. Batak eta besteak ez dute aitzakirik ona ez etortzeko... Ia, Zabaltza, joan adi Zildoz'gana, ta txistuarekin bereala etortzeko esan zaiok.
- ZAB. Bai, laster emen gera biok. (*Eskuitik aterako da*)
- EÑO. Ta... zeintzuk ziran, Ureta, bi atzefitar oiek?
- URE. Nik ez ditut ikusi, baña, diotenez, bat zar-samafa, bestea gaztetxo dira. Aberatsen antzik ez omen dute, gudaricnik ere ez. Ez dute ezer beren buruak zaitzeko.
- OLA. Iruña'ko beartsuen batzuk, noski.
- EÑO. Ez diat uste, Olabe; Ondo zekitek Iruña'ko txiroak Efo jauna Orikain'go endore dan bitartean, emen oña sartzeko biderik ez dutela... Gizona bere kopetako izerdiaz lan eginda bizi bear dek, ez inoren lepotik.
- URE. Ori, ori, Efo.
- OLA. Ederki esana.
- EÑO. Orikain'go ondasunak biltzeko neiko gaituk gu.
- OST. Bai, apike.
- LAK. Zeintzuk izan ditezke, bada?
- URE. (*Eskut-aldera begira*) Ementxe Zildoz.

VI AGERKALDIA

Lengoak eta Zildoz.

(Zabaltza ta Zildoz eskutik sartzen dira. Zildoz itun, danbolina ta txistua eskuetan dituala).

- OLA. Zer dek, Zabaltza, egoak sortu ote zaizkik oñetan, ain arin itzultzeko?
- ZAB. Ez ainbeste, mutil. Zildoiz bertan baizetofekan. Ez dik gaxoak txistua jotzeko gogo aundirik izango, noski, alaba il zaiolako.
- URE. Alaba il?
- ZAB. Bai, ta ala ere ez dik uts egin nai izan.
- EÑO. Zein il zaik, Zildoiz.
- ZILD. Nausiena.
- OLA. Nausiena ala ere!...
- ZILD. Ez da txikia artu degun kaltea.
- LAZK. Egia, noski.
- EÑO. Ez adi kikildu, Zildoiz... Gure ilargi jaunak bere egunean Izaña maite-kutuna bereganatu egin dik... Ez zegok toki txafean... Gaur inoiz baño biziago jo bear diok txistua, irtetzaz efukitu dedin.
- ZILD. *(Itun)* Bai... egingo degu alegin.
- EÑO. Asi gaitezen, bada, lenbizi eskaria egiten.

(Efo erdian, beste seirak alde bietan iruna direla, jariko dira. Efo aufferantz eta zerurantz eta zerurantz begira, besteak burua apur bat makur eta alkafi arpegia ematen, makiñ bi eskuz lufferantz dutelarik).

ABESTIA

Efo

Ilargi eder, gure Jaun aundi
 Gabeko izafen efege,
 Eguzkiaren ordezkari
 Lufeko denen Jaun-jabe.

Denak

Lagun gaitzazu, ezin bait degu
 Gauz onik egin zu gabe.

Eŕo

Zuk lufai gozotasuna,
Landara denei bizia,
Suari gafa, urai ezoa,
Zuk denei duten guzia.

Denak

Eman zaiguzu bear deguna
Gure Jaungoiko aundia.

Eŕo

Bidariari gau ilunean
Eiten diozu argia,
Bide-galdurik dabilenari
Zuk erakutsi bidia.

Denak

Zure besetan ibil gaitzazu
Ilargi laztan-garbia.

(Zilidoz'ek egiz txistua jotzen baldin ba'daki, abesti aben ondoren dantzaren bat, makil-dantza-edo, egin dezakete. Bestela, Zilidoz txistua jotzen asteko dala, Onesto, Fermin eta Akefeta agertuko dira).

VII AGERKALDIA

(Onesto, Fermin eta Akefeta eskultik sartuko dira. Akefeta'k eskuan makil sendo bat dauka. Eŕo'k lenbizi garatz eta urduri itz egingo du.

Besteak afiturik daude).

ONE. Ilunkara on, gizonak.
EŔO. Baita zuei ere. (*Uŕengo izketaldiak arintxo*).
ZAB. Erbestetafak!
OST. (*Olabe'ri*) Nongoak dituk zarpatsu oiek?
LAZK. (*Ureta'ri*) Zer nai diñek emen oiek?

- URE. (*Lazkoz't*) Guri ozkatu, noski.
 OLA. (*Osteriz't*) Aita-semeak, bear bada!...
 ONE. Ongi agiri da biotza pozik dezutela.
 ERO. Ez degu orain beintzet berebiziko naigaberik.
 URE. (*Lagunai*) Gure andreak ikusitako erbestetarak dituk, noski.
- ERO. Nongoak zerate, baña, gizonak?
 ONE. Nere lagun gazte au alde abetakoa da, Iruña'ra; baña ni ufutikoa naiz, Akitania-aldekoa; ta aspaldi zuen artean nabil.
- ERO. Ta zertara etofi zera guregana?
 ONE. Zuei on egitera.
 URE. Guri on egin... bai ote?
 OLA. Atzefitarak, lozintxa aboan.
 OST. Erne oiekin, lagunak!
 ONE. Zuei on egitera, bai. Zuek deabruaren menpetik atera, ta zerurako bidean jartzera.
- ERO. (*Garatz*) Baña, zer diozu, gizona? Gu ez gera iñoiz iñoren mendean bizi; beti gere burua azke-azke izan degu euskeldun menditarok. Ez gaitu oraindik iñongo etsaiak menderatu. Eromatarak Iruña'n sartu afen, emen ez dira iñoiz sartu.
- URE. (*Lagunai*) Ergeltzat artu gaitu ofek.
 ZILD. (*Lagunai*) Erakutsiko diogu zein dan ergelago, bera ala gu.
- ONE. (*Bigunki*) Nik beste etsai bategaitik itz egin dizuet, gizonak. (*Gero apal-apal egongo da*).
 ERO. Guk ez degu besterik, baso-piztiak ezik.
 FERMIN. Itxedon zazute apur batez, anaiak, eta zuen buruko iluntasuna bereala kenduko dizue nere irakasle maite onek.
- ZAB. Zer diok mutikoa? Guk gere buruak neiko argi zeuzkagu.
- LAZK. Ez diagu zuek Iruña'n ainbat ardo eraten. Ixilik ez ba'ago, totel ori!...

- ONE. Zandete, gizonak. Ez dizue Fermin'ek gai ofetaz itz-egin-eta.
- URE. Zertaz, bada?
- ONE. Zuek ez dakizkizuten, eta jakin bear zenituzketen egi befi batzuengatik.
- OST. (*Lagunai*) Gizonok guri gaurko jaia eragoztera etofi dira.
- OLA. Ez degu, ba, alpefik bereala galtzeko...
- ZAB. Ez, noski.
- OST. (*Ero'ri*) Ero, jauna. Zergatik gaude aboa zabalik gizon oiei begira? Bota ditzagun emendik, eta ekin dantzari.
- AKERETA. (*Lariturik*) Itxedon zazute, gizonak; ez zaizute damutuko-eta.
- URE. (*Akereta'ri*) Zer? Irabazi al aute?
- ZILD. (*Akereta'ri*) Burua saldu egin dek, ala?
- AKER. Zaudete apur bat eta ikusiko dezute. Onek dioten baño egi politagorik ez dezute inoiz aditu.
- ERO. (*Bigunki lagunai*) Nik, gizonak, ez dakit zer esan ere. Erbestetar aben ego-erak biotzetik arturik bezela nauka... Nai badezute, gizonoi itz-egiten utziko diegu, ia zer befi dakarten... (Iargi-beteak geroko ala bigarko utziko ditugu, nai aña jolastutzeko... Baña nai dauanak alde-egin dezake.
- ZAB. Ez, jauna. Gu ere gerturik gaude aditzeko.
- OSTERIZ EZ BESTE DENAK.—Baita gu ere.
- OST. (*Olde txarez*) Nai dezun bezela.

VIII AGERKALDIA

Lengoak eta Ilegoñi.

(*Ero'k akenengo itzok bukatu baño lenagotik, Ilegoñi jakinaiaaren jakinaiaz, txabolako atetik begira dago. Ero'k orainxe nabaitu du.*)

ERO. (*Ilegoñi'ri*) Emakumeak bafenera; len ere esan dizut.

- IĒGORĪ. (*Bere baitan*) Au bizimodua! Bařenean egon bear, eta ezin egon!
- ONE. (*Eřo'ri*) Utzi zaiozu, nausi jauna. Nik dakartan Beřiona denondako dalako.
- EŘO. Gure andrea gizonen artera etortzea nai al dezu, jauna?
- ONE. Bai, gizona; berak ere aditu dezan.
- EŘO. (*IĒgori'ri*) Ba'zatozke, bada, guregana.
- IĒLEG. Nere jainkoa! Noizbeit bear zan. (*Sartzen da*). Len gizonok gurean egon direla uste det, ba.
- ONE. Bai; ta iřor ez zegolako, aufera joan gera.
- IĒLEG. (*Onesto'ri*) Ta... sutan zegon aragiari zerbait egin ote diozu? Iřoiz ez bezelako gozo zegon -eta.
- ONE. Ez diot ezer egin, emakume, bedeinkatu besterik.
- IĒLEG. Nola esan dezu? Nola? Nik ere ikasi nai nuke -ta.
- ONE. Ori ez da ikasten, emakumea.
- ZILD. (*Bere baitan*) Asi dek emakume ori izketan, eta ez zaiguk gau guzian ixilduko.
- EŘO. (*Zildoř'i*) Banetxekian ori, Zildoř; abekin ez bai dek gauz zuzenik. (*IĒgori'ri*) Egon zu or, ixilik... Sukaldeko lanetan beste batez ikasiko dezu. (*Onesto'ri*) Itz - egin dezakezu, bada, jauna.
- IĒLEG. (*Bere baitan*) Ixilik egon bearko beřiz ere.
- ONE. (*Esku-begiak xerurantz jasorik*) Banekian, Jesus maitea, nere otoitzak adituko ziřitula.
- FERMIN. (*Esku - begiak jasota*) Nere anai abenbio-tzak gertu itzatzu, Jauna, zure itza ongi adi-tzeko.
- (*Bitartean gizonak ariturik, eta alkari begi-ra daude*).
- URE. (*Besteal ixilik*) Zer diote bařa gizon abek?
- AKER. (*Uřeta'ri*) Ago, mutill... Laster jakingo dek.

- ONE. Gizonak: goian ikusten dezuten ilargi ori, ta egunez argi-egiten digun eguzkia, ez dira inoren jaunak, ezta izaki bizidunak ere.
- EÑO. (*Ariturik*) Zer dira, ba?
- OSTERIZ EZ BESTE DENAK.—(*Ariturik*) Zer dira, ba?
- OST. (*Bere artean*) Banekian nik... Aboa zabaldu bezin laster, astekeri utsak erion....
- ONE. Guk oin-pean degun lur zahal au bezelakoak dira biak; Jaungoikoak, gure aurreko ta gu guzian Egile ta Nausi-Jaunak lur onekin eta izar guziekin batera egindako gauzak.
- ZAB. Bai, ote?
- AKER. (*Zabaltza'ri*) Baietz, baietz, gizona.
- URE. Non dago Jaun indartsu ori? Guk ere ikusi nai genuke-ta.
- ONE. Lur ontan gauden bitartean ezin genezake Jaun ori ikusi, espiritu utsa dalako. Baña emen bean ongi bizi ta bere aginduak betetzen baditugu, gero, il ondoren, atsegin eta pozez beterik, bere arpegi eder-gozoari beti begira egongo gera.
- EÑO. Gauz politak dira abexek!...
- OST. (*Eño'ri*) Politegi, Eño jauna, egiak izateko. «Egia latz eta garatz»--dio gure esaera zafak. Eta... «esaera zafak, gezufik ez».
- ZILD. Eta...
- FERMIN. (*Onesto'ri*) Zure orde z erantzungo ote diet, aita? Zu asko nekatzen bait zera.
- ONE. Bai, seme; erantzun dezaikezu.
- FERMIN. (*Gogo sutsuaz*). Gu denok gorputz utsak ez gera. Gorputzaz gñera, Jainkoak bere antzera egiñiko anima bana degu denok, gizonaren burua zuzentzen duan anima bat. Ilda gero, anima Jainkoaganantz joango da, Beragandik betiko nekea ala betiko zoriona artzeko. Jainkoaren aginduak bete dituanak betiko zoriona izango du zero-goian; gaiztoak, befiz, betiko su ta neke bizia sulezean.

- LAZK. Gogofa dek orixe, gazte; nik ez ori ain ef ez sinistuko.
- FERMIN. (*Lazkoz't*) Alaxen da, ba, gizona.
- OLA. Nik ez diat ba alan ikusten, gazte.
- OST. (*Bere baitan asare*) Oiengatik ajola artzea erel!...
- EÑO. (*Urduri*) Eta... lege ori betetzea, efaza ote da?
- FERMIN. Bai, jauna. Jesus gure Jaunak bait dio: «Nere uztefia, au da, nere legea ariña da»...
- OST. Uztefiakin al ator guregana? Uztefiak abereentzat dituk; oa, ba, aiengana.
- AKER. (*Osteria'i*) Ez dakik, baña, legearengatik itz egin duala? Olakoak esateak erel!...
- EÑO. Baña non dezute Jaun ori? Iruña'n gelditu al da?
- FERMIN. Ez. Bi gizaldi bai dira gu guziongatik gurutz gogor batean il zala. Jaungoiko aundiak gizonak era negargafian ikusi zituanean, — bide txafari jafaiturik ia denak beste munduan betiko galtzen bai ziran—, bere Seme laztana, gure Jesus Jauna, mundura bialdu zuan, gizonei zerurako bidea erakutsita bere Eliza jartzeko. Iudu gaiztoak, ordea, bere egipenak ezin ikusirik, gurutzean il zuten.
- ZILD. Okefen bat egingo zikan-eta.
- FERMIN. Ez, ez zion inori gaitzik egin; denei on egiaz igaro zuan bizitza.
- EÑO. Jafaitu zak, gazte; befi ori oso atsegingafi zaitadak.
- ZAB. Neri ere bai, gutxi-asko.
- OST. (*Eño'ri*) Ez sinistu, jauna, efomatafen erokeriak dira-ta.
- ZILD. (*Eño'ri*) Ni ere txorabiatuko ote zauten nago.
- EÑO. Ez, ez zegok bildufik.
- FERMIN. Jesus gure Jaun ofek, Bera Jainkoaren Semea ta erakusten zituan gauzak egi utsak zirala

adierazteko, gizonak ezin egin ditzaketen egin-
tza afigafiak egin zitun.

URE. Bai? Nola?

LAZK. Nola?

FERMIN. Itxu askoi ikusmena eman, goñai entzunmena,
mekiak zuzendu, ta ilak, befiz, biztu egin zi-
tuan.

OLA. Ori ere bai?

URE. Gogofa dek orixe.

LAZK. Bai, apike.

OST. Gogofegia ere bai.

ZILD. (*Bigundurik*) Ai! Gaur bizi balitz!

EÑO. Egizko Jainkoa zan beraz Jesus ori.

ZAB. Izan bearko.

AKER. Alan da izan ere.

ILEG. Alde abetara etofiko balitz, ez liguke mesede
txarfa egingo, noski

EÑO. (*İlegori'ri*) Ez dezu entzun il zala baña?

URE. Oloki'ko atsoa baño geyago zan ori.

ZAB. (*Bizi*) Eta guri erakustera zatozen egiak Jaun
ofenak ote dira?

FERMIN. Bai, jauna; Jesus berberarenak dira.

EÑO. (*Sutsu*) Ori alan bada, guk ere sinistu bear.

LAZK. Dena egia baldin bada, bai beintzat.

AKER. Esan dizuet len, ni bezela jafiko ziñatela.

OLA. (*Akereta'ri bizi*) Ez zekiagu oraindik... Eta gi-
zonok gezurti alen batzuk badituk, orduan zer?

AKER. (*Olabe'ri*) Ez ditek gezurtien itxuraik.

OLA. Itxurakin bakafik abil ala?

OST. «Itxura, mitxura, ez dek ardoa ura».

(*Onesto besoak jasorik otoltz egiten jaritko
da*).

FERMIN. (*Sutsu*) Dioguna egia dala adierazteko, gere
bizitzak emateko gerturik gaude.

OLA. Ire bizitzarekin ez diagu ezer irabazten, gazte.

- Gañera, egi edo gezur batzuk gorabera, iñori bizitza kentzeko asmorik ez diagu.
- URE. Esan dekan jaun ori ona etofi, ta ezaubide batzuk egin balituzak, nik sinistuko niokan.
- ZAB. Nik ere bai bereala.
- LAZK. Gaur Zildoiz'i il zaiokan alaba eskeñiko genio-kan piztutzeko.
- FERMIN. Jesus'en legearen zabaltzaleak ere gauz arigafi asko egin dituzte, legearen egia adierazteko.
- OLA. Bai, ta zer? Guk ezekiagu ezer.
- LAZK. Zuen biongatik ez diagu ain ezez gure asabeen egirik utziko beintzat.
- OST. Ez, orixe.
- ZILD. Piztu zazute nere alaba ta sinistuko degu.
- LAZK. Ederki, Zildoiz; piztu dezatela lenbizi ire alaba.
- OST. (*Lagunai, urduri*) Kontuz beti kanpotafekin, lagunak! U...m!
- ONE. (*Besoak beraturik*) Orikain'dar maiteak: Mirariak egitea Jainkoaren eskuetan dago bakafik. Guk ez genezake Berari eskatu besterik egin.
- OLA. Or ikusi zuek!... Neska ori piztutzen ez badezute, alpefik sartu zerate Orikain'en.
- FERMIN. (*Onesto'ri*) Aita, neska ofen piztuerea eskatu dezagun, gizon aben betiko osasuna mirari ofi begira dago-ta.
- ONE. (*Fermin'i*) Bai, seme; argi asko ikusten det ori... (*Besteai, bizi*) Aditu, Orikaingo gizonak: Jesus gure Jaunak neska ori piztutzen badu, sinistuko al dezute Beragan?
- EÑO. (*Berealaxe, bizi*) Bai guk; Jauna.
- OSTERIZ EZ BESTE DENAK.—Guk ere bai.
- ZILD. Bai nik beintzet.
- ONE. Erakutsi neri neska ofen etxea.
- ZILD. Atoz, jauna, nerekin.
- EÑO. Goazen gu ere.
- OSTERIZ EZ BESTE DENAK.—Bai, goazen denok.

ILEG. Ni ere joan bear naiz, ba, atzetik.

(Guziak joaten dira eskul-aldetik. Olabe ta Osteriz besteekin joaten asko dira; baina Osteriz'ek, eskutau bano len, eskuaz Olabe'ri sorbaldan ikutuko dio, ta biak beriz erdira itzuliko dira.

IX AGERKALDIA

Osteriz ta Olabe.

OST. (*Lxtl-samar*) Adi zak, i... Gizon oiek gezurti ta saltzale batzuk ote diran susmoa zeukat.

OLA. Nik ez zekiat zer esan, mutil.

OST. Badakik zer cgin?

OLA. Zer?

OST. Oraintxe buruz jo diat.

OLA. Esan zaidak, ba, agudo.

OST. Gizonok salatu bear zetikagu.

OLA. Nola?

OST. Ila piztutzea ez dek nolanaiko lana-ta...

OLA. Bai, ta...

OST. Balitzakek kanpotafok Zildoz maltzur ofekin alkar aituta egotea; atzo beintzat be-aldean ibili ukan.

OLA. Bai, bazekiat ori.

OST. Gañera egiz ilik egon afen, balitzakek guk eza-gutzen ez degun sendagairen bat oiek idukitzea; ta gero... sendagayari zor zaiokana ildako Jesus ofi eman.

OLA. Ederki, mutil! Ez dek buru makala!

OST. Maltzurkerietan artzen bazetikat... gaxoak! ez ditek gaur gabea bizkarlean otzik izango.

OLA. Goazemak, ba, lenbaitlen.

OST. (*Dijoazela*) Goiko laster-bidetik joango gaituk. (*Ezkeretik dijoazela, oiala azkar*).

OIALA

BIGAÑEN EKITALDIA

AGERTOKIAN.—Zildo^z'en etxeko lo-gela. Eskuitik ate estutxo bat. Ormak zurezkuak izango dira. Zurezko oatze txiki ala ol batzuen gañean Izara'ren gorputza lu-se etziñik dago. Eskuak baturik dauzka. Eskuitik eta oatze-ondoan, enbor biribil baten gañean, su-ontzia areitz-eguraz egindako suakin. Or-emen, kutxa ta eungintzako tresna batzuk jari ditezke. Gaba da-ta, Kurtzelu bik-edo argi egingo dute. Sartu ta irten-aldiak ate bakar ortik egingo dira.

Oiala jasotzean, Garbi oial zuriz ilaren gorputza biltzen ariko da.

I AGERKALDIA

Garbi bakarik.

GARBI. (Itun eta erdi-negarez). Au zoritxafa!... Au naigabe samina!..., Gure alaba!... Izafa ill!... Gure nekeen gozamina, gure laguntza bakafa joan!... Izafa maitea! Nolan eman nizaken iri nere bizitza, nere biotzeko indar guzia?... A! Alaba laztana! (Arpegian musu emango dio) ...Zergatik iges egin digun etxetik?... (Bizia-go) Eranegun, ardiekin basora abiatu intzanean, ire ondofik igaro zan bela galduaren egazkera makurak ez zitzaidanan gili-gili onik egin; okerren bat gertatu bear zitzaigula bereala bururatu zitzaidanan, eta... ail aundia gertatu ere!... Bart gure olafak ez din jo garaiz kukufukoa... (Olafari) Ire lepo zikin ofek gaur bertan ordaindu bearko zidak!... (Suari begira) Su bedein-katu onek nere alabaren inguru ta bideak beti

garbitu ta zuzendu ditzala, bere atsedena inork
kezkatu dezan...

II AGERKALDIA

Garbi ta Uso.

- USO. (*Ari-arin sartzen da*) Ama! Aurki etofiko dirala esan dirate.
- GARBI. Denei esan al dien, maite?
- USO. Bai, denei, ama.
- GARBI. Ta guziak etofiko dirala esan al dikiten?
- USO. Akeřeta'renak ez, besteak bai.
- GARBI. Zer din, ba, Akeřetarenak? Gexorik ote zegon?
- USO. Ez, gexorik ez. Atzefitar bikin izketan zegon, eta ilak eresi bearik ez dutela esan dirate.
- GARBI. (*Asaře*) Ori ere bai? Bera! atso zafa il zitzairenean, zintzo asko joan nintzan, ba, ni. Ta orain gurean ila danean... ilak eresi bear ez dutela!... Nork nastu dio burua emakume zistrin ori, gezur galant ori esateko? Bi erbestetar oiek, bear bada... Berea da efua, erbestetarekin asi diralako... Berenean inor iltzen danean, ez naiz ni ere joango, ta... kito. (*Bitartean Uso Izařa'ren gorputzari begira ta ikutuka egon da*).
- USO. Ama! Izařa ez da ezer mugitzen. Begiak ere ez ditu zabaltzen.
- GARBI. (*Bareago*) Utzi zaion geldirik, aupa.
- USO. Ta, noiz arte egongo da geldirik, ama?
- GARBI. Beti ta betiko, Usotxo. (*Bitotza samurtzen zaio*).
- USO. Betiko? Ez degu beřiz elkarrekin jolastu bear, ama?
- GARBI. Ez, enetxe, ez... (*Uso negarez asten da*) Bai, Uso, bai. Biar goizerako sendatuko den ire aizpa, ta nai aña jolastuko zerate... Ez, ba-

da, egin negafik, alabatxo... (*Uso'k malkoak legortzen ditu*) Oa orain egurtegira, ta ezpallatzuk ekafi, su ori piztutzeko, bestela ez den sendatuko gure lzaña-ta.

USO. Zenbait ekafiko ditut, ama?

GARBI. Iru-lau neiko ditun. (*Uso irtetzen da*) ...Ume gaxoa! Biar goizean aterako ditun negafak gorputz oni lufa emango zaionean!... Ez dakit nolako gezufak asmatu ere... (*Itun eta gogorago*) Etxeko zoriona joan zaigu beintzat, eta auferantzean... erukafiak gul... Alaba maitea!...

USO. (*Lau ezpalakin sartuaz*) Ona emen ezpalak, ama. Nik botako dizkiot suari.

GARBI. Ez, maite; il egingo den, bear bada-ta. Nik piztuko diñat... (*Ezpalak artu ta suari botako dizkio. Bitartean Uso aiazpuri begira egongo da*). Eta... ez al den inor agiri bidean?

USO. Bai, Areizti'ko «Pospolin» bertan dator.

GARBI. Zergatik ez den, ba, lenago esan?

USO. Aztu egin zait-eta.

III AGERKALDIA

Lengoak eta I Adiagilea («Pospolin»).

(Pospolin beltz-jantzirik atean agertuko da. Ufengo bi agerkaldi abetan ixil-samar, il-gelari dagokionez, itz-egingo da).

I ADI. Sartu al diteke, Garbi?

GARBI. Bai, andre Pospolin, sartu zaite (*Pospolin sartu ta bereala lzaña ikustera joango da*).

GARBI. Beti zu lenbizi, beti zu zintzoena.

I ADI. Bai, nik egin bear detana, bereala egiteko oitura diñat. Bat gexotu dala, bera ikusi ta alaitu; inor il-egin dala, eresiak pigoz abestu. Denei laguntzea nere eginbeafik audiena den.

- GARBI. Ai! Zu bezelakoak denok bagina...
 USO. (Gogor) Zertara etori da Pospolin, ama?
 GARBI. (Uso'ri) Ixilago itz-egin zan, afa.
 USO. Pospolin etofi dalako?

IV AGERKALDIA

Lengoak eta beste iru Adiagileak.

(Iru adiagileak, beltz-jantzirik atean agertzen dira).

- 2'g. ADI. Sartu al gaitezken, Garbi?
 GARBI. Bai, afera (*Irurak sartzen dira, eta zuzen Izaña'ganantz joango dira*).
 2'g. ADI. Enel Ori edertasuna!
 3'g. ADI. Ori begien argitasuna!
 4'g. ADI. Ori arpegiaren gozotasuna!
 2'g. ADI. Ori eskuen txukuntasuna!
 3'g. ADI. A! Nor legoken ire lekuan!
 4'g. ADI. Izar batek baño geiago dizdiatzen du.
 2'g. ADI. Izenez Izaña da-ta.
 3'g. ADI. Bai. Ez ziñan buru txafa bere Amak izen eder ori, ari zionean.
 1'g. ADI. (*Bera ere Izaña'ri begira jaririk*) Ilargi bera ere ire edertasunaren bila zebilen.
 GARBI. (*Zizpuruka*) Ai!... Gure alaba laztana!...
 2'g. ADI. Itz abek biotza samintzen dikiten. Gaxoa, i!
 4'g. ADI. Ez din afitzekoa, emakume; amaren biotza oso minbera bait den.
 GARBI. Ezin det emen geiago egon, eta alde egin bear-ko det. Zuek zeren lanari asiera eman dezaiokezute... Agur, gero arte. (*Bere ondoan ari turik egon dan Uso'ri*) Goazen, Uso, sukaldera.
 USO. Ta emakumeok zer egin bear dute, ama?
 GARBI. Goazeman oatzera. (*Ta besotik artuta, biak ateratzen dira*).

V AGERKALDIA

Lau Adiagileak.

(Lau adiagileak, bata bestearen atzetik eta zafanak aurretik, oatzeari bira bat emango diote, beti ilari begira. Gero oatzearen lau ertzetan lurrean kukuriko jariko dira).

ABESTIA

Denak

Ume gaztetxo bat gaur il zaigu
Bere urtien saferan
Bere amatxoari egiñik
Zulo bat biotz-erdian.

I Adiagileak

Adiagile nagusienak
Zuzentzen dizu negafa
Zu zeralako nere edefena
Nere lorerik bakafa.

II Adiagileak

Gure emakume adintsu ofek
Deitu zaitu lorea,
Deituko zaitut nik obeago
Usoa, paregabea (*)

III Adiagileak

Nere aizpatxo laztan-laztana
Aboan dezu eztia;
Ilargiakin gaur bizi zera,
Aundia zure zoria!

(*) Lenbiziko adiagileak ez du ontzat artuko bigarrenaren ziritxo ori.
Aaefe-antza jariko da,

IV Adiagileak

Zure arpegi polit-edefak
Ez dakit nik zer dirudin
Ilargiaren antza daukala
Esan dezaket, Pospolin.

(Azkenengo eresia aditu orduko, Pospolin asefaturik zutitzen du ta laugafenari diotso:)

- 1'g. ADI. Lotsagabeko ori! Ez al den ni isekatzeko lotsarik?
4'g. ADI. Zer diozu, baña? Nik ez zaitut isekatu.
1'g. ADI. Bai, emakume afoxko ofek...
3'g. ADI. Zaudete biak ixilik. Emen ez da alan ibiltzen.
1'g. ADI. (3'gnari.) I ere neri erakusten? Sudufa ere non den ez dakin-eta. (*Lurëan beriz eseritzen da*).

(Bereala, bat-batean, ate aldean zarata andia entzuten da. Lau adiagileak bat-batean eta dardaraz izuturik jeikitzen dira, ta ezkerreko bazteferantz egiten dute).

- 1'g. ADI. Ene! Ene!
2'g. ADI. Zer den ori?
3'g. ADI. Basojaunal
4'g. ADI. Efukafiak gul
1'g. ADI. Zer ikusi bear diñagu.

VI AGERKALDIA

Lau Adiagileak, Osteriz ta Olabe.

(Osteriz ta Olabe lasterka sartzen dira, ta zuzen-zuzen Izafa'ganantz abiatuko dira).

- 2'g. ADI. (*Izuturik oyuka*) Zer dezute gizonak?
OST. Zaudete ixilik (*Izara aztertzen asiko dira, bañan bera iñola ere ikutu gabe. Une batzutan ixilik daude biak. Bitartean*)
3'g. ADI. (*Lagunai*) Zer gertatu zaie gizon oiei?
4'g. ADI. Gorputza ostutzero, noski...

- 1'g. ADI. Etxe au zoritxarak jo bear du.
 2'g. ADI. (*Gogorago*) Gizonok erotu egin dira.
 OST. (*Emakumeai, asare*) Obe zendukete eresiak
 abesten ariko ba'ziñate; emakume befitsuok!...
- 1'g. ADI. Ene!
 3'g. ADI. Ai!
 OST. (*Olaberi, arpegia ondo aztertu ondoren*)
 Ezta arnas-apurik ere!... Benetan ilik zegok.
 OLA. (*Gauzaren bat bururatu balitzala bezela*)
 Oraintxe ikusiko diagu ori. (*Bi eskuak bere*
aboaren inguruan jari, ta Izaña'ren belarri-
rantz zertxo bat makurturik, indarez oiu
egingo du) Eup!
- 4'g. ADI. (*Bat-batean bildur-ikaraz nai-ezko saltotxo*
egingo du, oiuka esanaz) Ai, ene!
- 2'g. ADI. Non gaitun, baña?
 1'g. ADI. Zer egin bear din gizon zakar orek?
 OLA. Ezta igikeraik ere!...
 OST. Neska au ilik zegok. Piztu egin bear duanak ez
 dik lan gutxi.
- OLA. Bai, emen ikusiko diagu kanpotar ori mutila
 dan, ala ez.
- 1'g. ADI. (*Bere baitan, lariturik*) Zer zioten oiek?
 3'g. ADI. (*Bere baitan*) Gizonok añas erotu ditun.

VII AGERKALDIA

Lengoak, Zildoz ta Garbi.

(Zildoz ta Garbi bafendik izketan ari dira:)

- GARBI. Nongoa da, baña, gizon ori?
 ZILD. Nongoa dan ez diot ongi artu, baña gu denoi
 on-egitera omen dator.
 OST. (*Olabe'ri ixilik*) Bazetorek Zildoz.
 ZILD. Piztuko al digu?

- GARBI. A! Ez genioke, ba, gaizki ordainduko...
- OLA. (*Osteriz'i ixilik*) Orain guzia garbi jakin bear diagu.
- OST. Bai, ařanoak ez ba'dik!
- 2'g. ADI. (*Lariturik*) Zer gertatzen da, bařa, etxe ontan?
- 3'g. ADI. Zer ikusi bear degu oraindik!
- ZILD. Baietz agindu digu, ba. (*Sartzean*) Emakumeok ixilik daude. Zer da emen?
- 1'g. ADI. Nork deitu gaitu zoro-etxe ontara?
- ZILD. (*Ariturik, Osteriz ta Olabe ikustean*) I emen intzan Osteriz?
- OST. Bai, mutil.
- ZILD. Nondik eta nola?
- OLA. Urduri-samar gatxiokan gizon beři ořen burubideaz, ta goiko laster-bidetik etofi gaituk, gauzok ongi jakiteko-edo.
- ZILD. Ez zerate ni bařo geyago egongo, ařaiopola!
- OST. Ez zekiagu, ba... Adi zak, Zildo: Izafa egiz ilik ote zegok?
- ZILD. Nolan nai dek, ba?
- OLA. Itxuraz alan zegok, bai.
- ZILD. (*Asare*) Ze itxura, ta ze ařaio! Ez al dek ikusten?
- GARBI. (*Itun*) Ori ere galdetu!... Gu jolasean gabiltzala uste dezute, ala?
- ZILD. (*Urduri*) Zer esan nai dik galdera ofek?
- OST. Ezer ez, Begiak askotan atzipetu egiten gatxetitek-eta.
- ZILD. Lau urteko ařa uste al nauk, ala?
- 4'g. ADI. Zer dakarte bařa gizonok?
- 3'g. ADI. Gureak egin din gaur.
- 1'g. ADI. Ilargiak gaizkatu gaitzala.
- 2'g. ADI. Zer du, bařa, gaurko gabak?
- OLA. Egia esan: bildur gindukan kanpotar ofek i ařetik artuta ote indukan, gu txorabiatzeko,

- ZILD. (*Asafe*) Ago ixilik; nik ez diat sekula gizonik saldu.
- OST. (*Olabe'ri, sutsu*) Ongi aztertu bear diagu, ba, kanpotar ori... Sendagairen bat ateratzen baidu... efukafia bera!
- ZILD. (*Bizi*) Bai? gizon ofi eragozpenik jartzen ba' diozute, nafuaz ordainduko didazute.
- OLA. (*Sutsu*) Ez ziokagu eragozpenik jafiko; ongi aztertu, bai.
- ZILD. Ikusiko diagu oril...
- GARBI. (*Lariturik, erdi-negarez*) Ai! Nork jafi gaitu estura lafi ontan?... Alaba laztana!
- 1^{g.} ADI. (*Bere baitan*) Zer ikusi bear diñagu gaur?
- 2^{g.} ADI. (*Bere baitan*) Bizirik irtengo al diñagu?
(*Barendik jende-zarata ta otsa aditzen da*)
- ZILD. (*Garbi'ri*) Ba'dator gure jendea (*Osteriz'i*) Ba'aitekek buruz ibili, Osteriz. (*Lasterka dijoa ateraño*)
- OST. Ustez buruz gabiltek. (*Olabe'ri, ixilik*) Guk eutsi beti gureari.
- 4^{g.} ADI. Geiago oraindik! Ene!
- 3^{g.} ADI. Non sartu gera, gaur?
- 2^{g.} ADI. Gaurko zorabioak bukabiderik ez.
- GARBI. (*Zizpuruka*) Izafa maitea! Izango ote augu?

VIII AGERKALDIA

Uso ez beste denak.

(Onesto ta Permin beste denen aurretik sartuko dira; denen atzetik Hegori. Bereala denak oatz-eguruan jafiko dira Onesto'k zer egingo begira. Zildoz'ek ate odon itxedon die, ta Onesto agertzean dio:)

- ZILD. Sartu zaitezte, jaunak. Ona emen gure alabaren gorputza.
- ONE. (*Sartzean*) Jaunak etxe ontan pakea ta osasuna sartu ditzala!

- GARBI. Ez degu besterik bear, ba, jauna.
 FERMIN. Itxedon zazu, ta bata ta bestea laster ikusiko dituzu.
- 2'g. ADI. (*Bilduñez*) Nongoak ditun gizon oiek?
 1'g. ADI. Zer ikusirik ditene oiek emen?
 ONE. *Zildoñ'i* Zer bear zuten andreok emen?
 ZILD. Jauna, ilari gabaz eresiak abestutzeko ots egin diegu.
- ONE. Jainkoa'gan il ez dan animak ez du eresi bearik, betiko sutan dagolako; Jauna'gan il danarentzat befiz, biotzeko otoitzak zuzendu bear zaizkio Jainkoari, beraz erukitu dedin.
- 1'g. ADI. (*Zildoñ'i*) Nondik ekafi ziguk agure ori, ofelako astakeriak esateko?
- 3'g. ADI. Gurean olakorik aditu bear gendunik!...
 ONE. Emakumeak: Zuei zerurako bidea erakusteko, ta gu guziongatik zerutik jetxi ta il zan Jaungoikoaren Semea, Jesus gure Jauna, adieraztera etofi gera.
 (*Emakumeak aiturik daude, Zildoñ eta beste gizonak urduri, beriz, Izara'ren platuera lenbailen ikusi naiaz.*)
- 2'g. ADI. (*3'gnari*) Zer zion ofek, neska?
 3'g. ADI. (*2'gnari*) Ez zekiñat... Jaungoiko ila, ta...
 FERMIN. Ez afitu, befiak diralako. Betiko zorion-bidea erakustera etofi gera.
- 4'g. ADI. Zoriona!... Ofen bila gabilitza, ba.
 1'g. ADI. Ez dago gure burua gauza befiak ikasteko eran.
 2'g. ADI. (*Bere baitan*) Gizonok gezurti-befitxu batzuk ote dira?
- ZILD. (*Bere baitan, urduri*) Asi dituk emakumeok ere izketan. (*Emakumeai*) Zer? Kanpotar jaunok gezurtitzat al dituzute? Emen gera gu, inor burutik bera ezagutzeko.
- 2'g. ADI. (*Bere baitan*) Ikusten detana ere ez diñat sinisten.

- ERO. Bukatuko al degu inoiz emakumeokin?
 URE. Ez beingoan, afanopola!
 OST. (*Olabe'ri*) Etorkizunak bafena egosten zidak.
 OLA. (*Osteriz'i*) Neri ere bai, mutil.
 LAZK. Luze zijoak au, araietan!
 AKER. (*Lazkoz'i*) Ez adi lafitu, Lazkoz.
 ZAB. (*Akereta'ri*) Bai, i beti lelo ofekin.
 FERMIN. Ez zaitetze lafitu, gizonak; emakumeok ere Jaunaren befia aditu bear dute-ta... Neskatz au Jesus gure Jaunak piztuko duala sinistu zadazute.
 OST. (*Bere baitan*) Ori ikusteko zegok oraindik.
 GARBI. (*Onesto'ri*) Jauna, gure alaba piztu ezazu, inondik eskubiderik baldin ba'dezu.
 ZILD. (*Onesto'ri*) Ez artu, jauna, ajolarik emakume oiegatik. Piztu zaiguzu gure Izafa.
 ONE. Begira, Zildo: Gizon guztion bizitzak Jaunaren eskuetan daude, Berak nai duanari eman eta kendu dezaioke. Guri ez zaigu Berari eskatzea besterik. Ara, bada, Orikindafak: Jesus'ek neska au piztutzen ba'du, Beragan sinistu ta bere legea artuko al dezute?
 ERO. (*Bereala*) Bai, biotzez agintzen dizugu. Ez bait dezake inork berez bein ildakorik piztu. (*Orikain'dafai*) Esan, nere ofitafak: Jesus gure Jaunak neska au piztutzen ba'du, Beragan sinistu ta bere legea artuko al dezute.
 DENAK. Bai, guk.
 OST. Neska au piztu dezala beintzat lenbizi.
 FERMIN. (*Begiak gorantz jasorik*) Eskefak, Jauna, zu beren Jauntzat autortzen asi diralako. (*Gero denak Onesto'ri begi-begira egongo dira, Osteriz eta Olabe batez ere*).
 ONE. (*Esku-begiak gorantz jasorik*) Judafak zere ta Aitaren jainkotasuna sinistu zezaten, Jairo'ren alabatxoa piztu zenduan Jesus ona: Zugan sinis-

tutzeko gerturik dauden anima gaxo abei begirapen gozo bat egin ezaiezu, berak ere zure odol eder-garbiaz inperuari erosiak bait dira. Sinismen biaz eskatuko genizun guzia ematea agindu zenigun Jaun aundi ofek, gure eskariok entzun itzazu, ta neska oni bizitza beña emaiotu, Orikaindar zintzo abek zure jainkotasuna ta nausitasuna aitortu dezaten. (*Bereala, ezpai gabe, neskagana joango da, ta besotik eldurik esango dio:*) Neska, Jesus'en izenean jeiki zaite.

(*Izara'k bereala burua jasoko du ta oatzean eseriko da. Gero Onesto'ri begiraturik esango dio:*)

IZARA. Nork deitu nau?

(*Guziak izutu ta bildurturik daude, Zildo eta Garbi liluraturik*)

ONE. Nik, Jesus'en izenean. (*Eskutik utziko dio. Fermin belaunikaturik Jaunari eskeñak ematen jariko da*).

ZABAL. Zer dakusgu?

EÑO. Piztu da!

URE. Non gaude?

3'g. ADI. Enel enel

1'g. ADI. Ori ere bai?

LAZK. Aundia Jesus'en indaia!

AKER. Bera gure Jauna da.

OST. Gu baño geiago dek. (*Biotz samurturik dago*).

IZARA. (*Eskuak baturik eta gorantz begira*) Jesus! Jesus! Izen gozoa, izen santua, izen aundia!... Ez da Beragabeko osasunik ez lufean, ez goian...

(*Zildo eta Garbi lasterka Izaragana dijoaz, alkar besarkatu ta lastantzeko. Posez negaraz daude*).

ZILDOZ. Gure alaba!

- GARBI. Izaña laztana!
- IZAÑA. Aita!... Ama!...
- OLA. (*Bizi*) Ez du inork oraindik olakorik egin.
- ERO. (*Olabe'ri*) Bai, Jesusek, bein baño geiagotan.
- URE. (*Sutsu*) Gizonok ez dira gu bezelakoak.
- ZAB. Bai, goitik jetxiak dira nunbait.
- OST. Alde guzietatik artuta gaituk.
- ILEGORI. Nork uste len olakorik?
- 2'g. ADI. Ametsetan ote gaude?
- 4'g. ADI. Ez dakit nik zer esan.
- ERO. (*Biotzez*) Gizonok esaten digutena abo beteaz aitortu bear degu.
- AKER. Aundia benetan Jaunaren eskua!
- OLA. Ezta sendagairik ikutu ere!
- OST. Gogofa da auxel
- URE. Bai, egiz.
- OLA. Geron begiz ikusi degu.
- ERO. Jesus ori egizko Jainkoa da.
- ZAB. Gu guzion Jauna.
- ILEGORI. Gaurko ilargi-beteak gauz afigafi asko sortu dizkigu beñepein.
- ERO. (*Illegori'ri, gogor*) Ez aipatu emen ilargirik.
- 4'g. ADI. Nongoa da ilak piztutzen ikasi duan gizon ori?
- 3'g. ADI. Ene! Olakorik!
- ONE. (*Garbi'ri*) Azkatu zaiozu isara ori, oatzetik jeiki ta ibili dedin; ez bait du ezer Izañak.
- GARBI. Bai, jauna; zure mendean naukazu, nai dezun guzia egiteko. (*Isara kentzen asiko da*).
- ZILD. (*Onesto'ren aurean belaunikaturik*) Ez dakit, jauna, nere biotzeko eskefak zuri nolan eman, nere alaba maite au piztu dezulako. Ez dezu nerekin agindu besterik; nik dena egingo dizut. Or dituzu nere abereak; artu nai dituzun bu ruak.
- ONE. (*Zildos'i zutitutzen laguntzen*) Zutitu zaite, gizona... Eskeintzen dizkidazun abereak zure-

- tzat gorde itzazu; nik ez dizut zure biotza besterik eskatzen. Ez eman, bada, neri eskefik, Jesus onari baizik. Berak itzuli dizu alaba.
- ZAB. *(Bere baitan)* Gizon onen ontasuna!..
- URE. *(Bere baitan)* Non bilatu olakorik?
- LAZK. *(Bere baitan)* Ondasunak eskeñi, ta artu ez!..
- OLA. Mutilek!..
- OST. Non uste len olakorik?
- EÑO. *(Sutsu)* Egia gizon onek dion guzia!..
- ONE. Orain, aditu dezagun denok Izaña'k esango diguna. *(Izaña oetik jeiki ta auferantz etoriko da, beste denak inguraturik. Fermin ere zutituko da).*
- IZAÑA. Anaiak: Gezur aundiak dira guk orain arte uste izan ditugun gauz asko. Beste munduan izan naiz, ta bertan ikasi detana zuei argi esan ditzazuket. Ara: Ez da Jaungoiko bat baizik, guzior egile ta guzior Nausi ta Jauna. Jainkoaren Semea, Jesus gure Jauna, gu bide okefetik kentzeagatik, zerutik lufera jetxi ta Maria'ren eñai garbietan gizon-egin zan, eta gu guziongatik gurutzean il zan.
- EÑO. *(Ariturik)* Begira!.. Len jaun onek esan dizkigun egiak dira.
- ZAB. Biak itufi batetik artu dute dakitena.
- OST. Alkar aituta ere, ezin obeki itz-egin.
- GARBI. *(Pozez, Izañari)* Gure alaba maitea!.. Nork erakutsi dizkin gauz afigafi oiek?
- IZAÑA. Jesus berberak, ama... Ta gero Jesus'ek esan dit: «Aizazu, Izaña: Zure emengo etorkizuna oso iluna zan betiko, baña gaur afatsaldean Orikain'en sartu dan nere mofoi Onesto'ren eskarien bitartez befiz bizitza emango dizut, gero denak bere esanak bete ditzazuten».
- OLA. Ofa or!.. Guk jaun onen izenik ez genekigun, eta neska onek dena ikasi du.

- EÑO. (*Bizi*) Emen Jesus'en eskua agiri-agirian dago, lagunak.
- URETA. Bai, ezin genezake ukatu.
- OLA. Bai, geron begiz ikusi degu.
- ZILD. Alaba laztana!.. Ire itzak txaraturik naukatxion. Len gure naigabea aundia izan ba'den, orain askoz aundiagoa den gure poza.
- ONE. (*Gorantz begira*) Altsua da, Jauna, zure eskua.
- FERMIN. (*Gorantz begira*) Neufigabea zure efukia.
- IZAÑA. (*Eño'ri*) Eño jauna: Jesus, gure Jaungoikoak asi duan lana, bukatu dezagun orain. Zu, gu guzior endore zeran ezkeror, gere biotzak Onesto jaunari eskeñi zaizkiozu, bere esanak aditu ta egiteko gerturik gaudela adierazirik.
- EÑO. (*Izaña'ri*) Bai, pozik. (*Onesto'ri*) Onesto jauna: Gauz arigafi asko aditu ta ikusi ditugu gau zoragafi ontan. Inork ezin egin ditzakenak goiko Jesus onak zure bitartez egin dizkigu. Zure eskuetan gaituzu, bada, gutzaz nai dezuna egiteko. Zuk erakutsiko diguzuna denok sinistu ta egingo degu. Au da beintzat nere eritzi ta asmoa; baña bestera dabilenak, nai duana egin dezake. Nere ustez, beste biderik artzea bere buruari kalte egitea da, ordea.—Esan orain neri, gizonak: Nik bezela Jesus zuen Jaun eta Jainkotzat aitortu, ta bere legea artzen al dezute?
- GIZON DENAK.—Bai, guk.
- EÑO. (*Emakumei*) Eta zuek, emakumeak?
- EMAKUME GUZIAK.—Guk ere artzen degu.
- EÑO. (*Onesto'ri*) Ona emen denon biotzak zure eskuetan. Itz egin zazu, ta gogoz adituko degu.
- ONE. Nere biotza lertzeko zorian dago pozaren pozaz, zuek Jesus'en artalde-bidean jafi zeratela-ko. Jesus'ek bere alde egin degun lan apufa

eruz ta ugari azi du. Bedeinkatua bedi bere erukial Berak guk jafi degun azitxo aunditu ta geitu dezalal—Orain, anai maiteak, Jesus'en jafaleai dagokien bizitzari asiera emateko; zuen artean irain-zofen bat baldin ba'dezute, alkafi biotzez parkatzea litzake zuen eginkizunik onena. (*Denak alkafi begira daude, iraiñen barkapena aditu ez balute bezela. Apurtxo bat geroago Lazkoz oartzen da, ta Osteriz'ganantz abiaturik, dio.*)

LAZK. Osteriz: len alkafekin bufuka egin diagu, ta alkafi parkatu beafean gaituk.

OST. (*Bigundurik*) Bai, mutil; egia dek.

LAZK. Nik beintzat dena barkatzen diat, iraiña ta zor didaken ardia. Ik, barkatzen al dizkidak esan dizkikaten itz txafak?

OST. Bai, mutil, ta pozik ala ere. Ator nigana; ta eman zaidak besarkada bat. (*Biak besarkatzen dira*).

FERMIN. (*Gorantz begira*) Jaunak nere anaien biotzak ikuta ditu. Onetsia bere izen santua!

OST. (*Zildoiz'gana zuzendurik*) Irekin ere zofa diat, Zildoiz; barkatzen al didak ire zintzotasunaz egindako susmo txafa?

ZILD. (*Samurturik*) Bai, nik. (*Besarkatzen dira*).

OLA. (*Zildoiz'i, samurturik*) Ni ere ofen laguna izan nauk. Barkatu zaidak neri ere.

ZILD. Bai, ta gogoz ala ere. (*Biak besarkatzen dira*).

ONE. Jainko efukitsuak Orikain 'dañak argitu ditu. Goiko argi iraunkofa betiko eman bezaie!.. Orain, seme maiteak, gaua auferaturik dalako, denok etxeratu zaitezke. Ufengo egunetan, Jauna lagun, sinistu ta egin bear dezutena astiro azalduko dizuet.

FERMIN Anai maiteak: Lotara joan baño len, Jainkoari egin dizuten mesede neufigabea aitortu beaf-

ean zaudete. Jaunak eri askoei eman ez dien zeruko argitasuna gaur, ilargi-beteko gau ontan zuei eman dizute. Mundu zabal geienak ez du gure Jesus maitea ezautzen oraindik. Napartar eta beste euskeldun geienak ere deabruaren menpean arkitzen dira, beren animak betiko galtzeko zorian diralarik. Ainbeste ta ainbeste oraindik eman ez dietena zuei bere efuki aundiak eman dizute.

Goraldy dezagun, bada, Jesus'en ontasuna. Eskatu Berari gogoz bere Beñionaren argitasuna munduko bazter guzietaraño lenbaitlen zabaldu dezala, gizon guziak bere artaldean sartu ditezen. Eta abestu orain denok nerekin Jesus' en Jainkotasun, Nausitasun eta Eñegetasunari.

ABESTIA

Denak

Kristo gure Jaungoikoa
Guziok degu aitortzen,
Gure Eñege ta Nausitzat
Guziok adoratzten.

Bere efuki txit aundiak
Eman digu argia;
Guzioi eman bezagu
Izargañeko gloria.

Onesto ta Fermin

Gure biotzak ez daki
Zofa nolan ordaindu.
Jesus efukitsuaren
Biotz santua goraldy.




Zildoz jaunaren alaba
 Piztu nai izan dulako
 Orikain'daŕen biotzak
 Ikutu ditu betiko.

Denak

Kristo gure Efege...

OIALA



THE
LIBRARY OF THE
MUSEUM OF
ART AND HISTORY
OF THE CITY OF
NEW YORK

1911

NEW YORK

1911

